www.unescoetxea.org

# 2017

## TXOSTENA

UNESCO ETXEA

EUSKAL HERRIKO UNESCO ZENTROA

# ARANTZAZU ACHA ZUZENDARIA




"17 entitate, 17 GIH" ekimenaren aurkezpena. #GIH17x17
Bilbo, 2017ko ekainak 22.

2017a urte ona izan da UNESCO Etxearentzat. Aldaketa handiko zenbait urteren ostean, erakunde moduan sendotzera bideratu ahal izan ditugu gure ahalegin eta baliabideak 2017an.

Gobernu-kontseiluaren osaera berritu dugu, eta gure oinarri soziala handitu dugu. Elementu horiek funtsezkoak dira UNESCO Etxearentzat. Susperraldi ekonomikorako prozesua ere sendotu dugu, eta horrek aukera eman digu gure proiektuak zabaltzeko eta proiektu horien irismena handitzeko. Memoria honetan, gure jarduera eta lorpen nagusien laburpen bat aurkezten dizuegu.

Garrantzitsua da sendotze hori UNESCO Etxeko profesionalen ahaleginari eta irmotasunari esker lortu dela aitortzea, eta zuen denbora eta ezagutzen bidez hazten eta aurrera egiten laguntzen diguzuenon konpromisoari esker ere bai.

Badakigu prozesu iraunkorra dela aldaketarena, eta prest gaude hari ilusioz eta adorez aurre egiteko. Horregatik, lanean jarraituko dugu gure erakundearen balio eta printzipioen alde eraldatzeko gure gizartea. UNESCOrekin eta Nazio Batuekin partekatzen dugu helburua: bake iraunkorra eraikitzea pertsona guztientzat.

**Erredakzio:** UNESCO Etxea – Euskal Herriko UNESCO Zentroko lan-taldea ; **Edizioa:** 2018ko maiatzak

**Bilbao:** Isozaki Atea – Bizikidetasun plaza. Uribitarte pasealekua 12, 2. lokala. *Tfna: 94 427 64 32*
**Gasteiz:** Zapatari kalea 8. *Tfna.: 945 26 41 96*

info@unescoetxea.org – www.unescoetxea.org

# NOR GARA?

**UNESCO Etxea – Euskal Herriko UNESCO zentroa irabazi-asmorik gabeko erakundea da. 1991ean sortu zen eta UNESCO (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) erakundearen printzipioak, programak eta jarduera-ildoak euskal esparruan zabaltzeko asmoa du.**

**2006anOnura publikokoa deklaratua, egun, elkarteak 132 bazkide ditu, eta horiek osatzen dute erakundearen gizarte-oinarria.**

## UNESCO ETXEKO ORGANIGRAMA

**BAZKIDEEEN BATZAR OROKORRA**

**OHOREZKO BAZKIDEEN AHOLKU BATZORDEA**

Federico Mayor Zaragoza.
José Antonio Ardanza.
Joaquín Achúcarro.
Juanita Carro. Fèlix Martí.
Txomin Bereciartua.
Daniel Innerarity.
Manuel Lezertúa. Silvia Escobar.
Carlos Fernández Jáuregui.
Ion de la Riva.
Jon Arrieta. Ruperto Ormaza.

**GOBERNU KONTSEILUA**

**Lehendakaria:** Guillermo Dorronsoro Artabe.
**Lehendakariordea:** Nieves Fernández Vicente.
**Diruzaina:** Txerra Ordeñana García.
**Idazkaria:** Libe Fernandez Torrontegui.
**Bokalak:** Jon Emaldi Abasolo.
Nieves Maya Elcarte. Federico Blanco Hernández.
Nuria López de Guereñu.
José María Villate *(Novia Salcedo Fundazioaren ordez)*

**ZUZENDARIA**

- Finantzak eta administrazioa
- Erakunde-harremanak
- Orientazio-zentroa, Komunikazioa eta Bekak
- 2030 Agenda eta Nazio Batuak Programa
- Garapenerako Kultura Programa
- Hezkuntza eta Bake kultura Programa
- Iraunkortasuna Programa

Gainera:
- 14 Boluntario egoitzan.
- Eusko Jaurlaritzarekin 12 bekadun UNESCO bulegotan Amerikan, Asian eta Afrikan
- BBK Fundazioarekin 2 bekadun en UNESCOren Pariseko egoitzan.



UNESCO Zentroen, Elkarteen eta Kluben Espainiako Federazioa (FECU) UNESCOren 39. Biltzar Orokorrean.
Paris, 2017ko urriak.

## EGINKIZUNA, IKUSPEGIA, BALIOAK

### EGINKIZUNA

UNESCOren Konstituzioko agindua –pertsona bera eta pertsonaren duintasuna nahiz balio gorena oinarritzat hartuta bake bidezkoa eta duina eraiki behar dela dioena– partekatzen dugu. Eta horretarako, elkartea, UNESCOren sozietate zibil gisa, euskal elkarte solidarioa bihurtu da, nazioartean jardungo du eta:

- Aktiboki hartzen du parte tokiko nahiz nazioarteko ekimenetan eta sareetan;
- Elkarrekintza eraldatzailea sustatzen du euskal gizartearen eta nazioarteko komunitatearen artean batez ere UNESCO eta NBErekin;
- Bere iritzi eta irizpideen ekarpena ere egiten du, hainbat modutara: ikerketaren, eragitearen, prestakuntzaren, berrikuntzaren eta dibulgazioaren bidez.

### IKUSPEGIA

Bake-kultura eta giza garapen iraunkorra –eskubideak eta erantzukizunak dituena– lortzeko egiten dugu lan. Lortu nahi dugun mundu berrian, pertsonak, gizarte-antolakundeak, hizkuntza- eta kultura komunitateak eta herriak aintzat hartuko dira herritartasun global demokratikoa eraikitzeko. Horretarako, giza talde sortzailea, parte-hartzailea, paritarioa eta aktiboa sortu dugu, elkartearen misioarekin eta balioekin bat datorrena.

### BALIOAK

Balio hauekin identifikatzen gara::

- Zintzotasuna; izan ere, gure zereginak, legezkoa eta etikoa izateaz gain, gure sektoreko jokabide-kode onena bete behar du;
- Partaidetza asertiboa, talde profesionalaren, Zuzendaritza Kontseiluaren, bazkideen eta kolaboratzaileen aldetik;
- Zuzentasuna, eskubide eta betebeharrei dagokienez;
- Gardentasuna eta gidaritza egokia, barrura nahiz kanpora begira, jarduerak, zuzendaritza-organoetako kideen izenak eta haiek hautatzeko eta berritzeko modua, ikuskatutako kontuak eta kudeatutako fondoen jatorria urtero argitaratuz;
- Profesionaltasuna, arlo guztietan kalitatez, eraginkortasunez, zehaztasunez eta errespetuz lan eginez;
- Sarean lan egitea, gure konpromisoak tokiko eta nazioarteko sare eta aliantzekin partekatuz;
- Independentzia, erakunde publiko eta pribatuekin elkarlanean arituz, baina, betiere, independentziari eutsiz, eta beti gure ideien printzipio eta balioen arabera jokatuz;
- Pluraltasuna, elkartearen barruan zein gure proiekzio publikoan, gure organo eta lanetan gizarte honen konplexutasuna eta osatzen dugun dibertsitate globala kontuan hartuz.

# SARE ETA ALIANTZAK

## UNESCOrekin eta Nazio Batuekin elkar hartuta…

- UNESCOrekiko Harreman Ofizialen Estatusa.
- Nazio Batuetako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren aurreko Aholkularitza Estatusa (ECOSOC).
- UNESCOren kultura-ondare ez-materiala babesteko batzordearen GKE aholkularia.
- Nazio Batuen Informazio Publikoaren Saileko (DIP) kidea.
- UNESCOren eskola elkartuen sarearen (PEA Sarea) autonomia erkidegoetako koordinatzailea eta estatuko koordinatzaileen taldeko kidea.

### Erakunde eta proiektu ezberdinetan parte hartuz…

- UNESCOrekin Elkarlanerako Espainiako Batzordea.
- Nazio Batuen Garapen Iraunkorraren Helburuei buruzko Kanpaina.
- Nazio Batuen Giza Eskubideentzako Ordezkari Nagusiaren Bulegoa (OHCHR).
- Garapenerako Nazio Batuen Programa (UNDP).
- Nazio Batuen Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturaren Batzordea.

## …Sarean lan egiten duen nazioarteko gizarte zibilaren partaide…

- UNESCO Zentroen, Elkarteen eta Kluben Munduko Federazioa (FMACU).
- UNESCO Zentroen, Elkarteen eta Kluben Espainiako Federazioa (FECU).
- Federació Catalana d'Associacions i Clubs UNESCO (FCACU).
- UNESCOren kultura-ondare ez-materiala babesteko konbentzioaren aurrean akreditaturik diren GKE-en Sarea.
- UN NGO Major Group.
- UN Women Major Group.
- Local Authorities Major Group.
- Together 2030.
- Local Governments for Sustainability (ICLEI).
- European Sustainable Cities Platform.
- Futuro en común.
- Garapen Iraunkorrerako Espainiako Sarea (REDS-SDSN).
- Water Assessment and Advisory Global Network (WASA-GN).
- ONGAWA.
- CONGDE-Espainiako GGKEen Koordinakundea *(Pobreziaren kontrako taldea).*
- Giza Eskubideak Defendatu eta Sustatzeko Espainiako Elkarteen Federazioa.
- Munduko Landagunea.
- Cultura de Paz Fundazioa
- Euskal Herriko UNESCO Sarea (EHUS).

## …Euskal Herritik maila lokalean eta globalean ekimen anitzetan parte hartuz…

- Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedra.
- Munduko Hizkuntza Ondareari buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedra.
- Kultur paisaiak eta Ondareari buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedra.
- Deustuko Unibertsitateko Latinoamerikako Giza Baliabideen prestakuntzarako UNESCO Katedra.
- Gironako Unibertsitateko Kultura Politiken UNESCO Katedra.
- Euskadiko GKEen Koordinakundea *(Eragin politikoa taldea).*
- Giza Eskubideetan Hezitzeko eta Bakearen aldeko Elkarteen Foroa.
- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatua.
- Universitat Oberta de Catalunya (UOC).
- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa.
- Garapen Bidean.
- Euskal Kostaldeko Geoparkea.
- Añanako Gatz Harana Fundazioa.
- Soziolinguistika Klusterra.
- Euskaltzaindia.
- Eusko Ikaskuntza.
- Elhuyar.
- Eroski.
- Bilbao Metropoli 30.
- Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Institutua.
- CIDE - Espainierako Nazioarteko Deustu Ikastegia.
- Deusto Alumni - Deustuko Unibertsitatea.
- Unescocat – Centre UNESCO de Catalunya eta Linguapax Institutua.
- UNESCOren lagunak Korporazioa, Kolonbia.
- Ahalbidetu Asociazioa.
- Plataforma 2015 y +.
- Bilbao Diseinuaren UNESCO Hiria . Hiri Sortzaileen Sarea.
- Gazte Enplegurako Hamarkadaren kanpaina. Novia Salcedo Fundazioa.

# UNESCO BEKAK

## 1997 – 2017

18 PERTSONA

46 HERRIALDE

Kontinenteen arabera

| | |
|---|---|
| AMERIKA | 91 |
| ASIA | 47 |
| AFRIKA | 38 |
| OZEANIA | 6 |
| GUZTIRA | **182** |

Sexuaren arabera

| | |
|---|---|
| EMAKUMEAK | 144 |
| GIZONAK | 38 |
| GUZTIRA | **182** |



# PROGRAMAK. Jarduera nabarmenak

## 2030 AGENDA ETA NAZIO BATUAK




'Alda dezagun planetaren norabidea… mugi zaitez GIH-en alde' kanpaina. Flashmob. Guggenheim Bilbao Museoa. 2017ko urriak 27.

2017an, gehitu egin genituen 2030 Agendari eta Garapen Iraunkorreko Helburuei (GIH) lotutako ekintzak, prestakuntza, sentsibilizazioa eta hedapen-lana; hala, nahi izan dugu euskal gizarteak konpromiso eta parte-hartze sendoagoa izatea guztiontzako etorkizun iraunkorrago eta bidezkoago bat eraikitzerakoan.

Hedapenari dagokionez, ekintza aipagarriak egiten jarraitu genuen; esaterako, SOStenibles.tv kanpaina eta lehiaketa, 2030 Agendari buruzko e-buletina eta zenbait ekintza EAEko herrietako kaleetan. Berrikuntza moduan, ***17 helburu gure mundua eraldatzeko*** ilustrazio-erakusketa sortu genuen, eta EAEko zortzi herritan jarri dugu.

Prestakuntzari dagokionez, **aurrez aurreko eta online bidezko ikastaroak** egin genituen, publiko orokorrari nahiz espezializatuari zuzenduta. **Tailerrak ere egin genituen 20 zentrotan, eta 500 ikaslek baino gehiagok parte hartu zuten haietan.**

2030 Agendari buruzko nazioarteko, estatuko eta tokian tokiko zenbait gunetan parte hartu genuen. Horien artean hauek izan dira aipagarrienak: **2017ko GIHen jarraipenerako goi-mailako foro politikoa** eta garapen iraunkorri buruzko **Nazio Batuen Europarako Batzorde Ekonomikoaren (UNECE) 2017 foroa.**

Beste berrikuntza bat Alda dezagun planetaren norabidea... Mugi gaitezen GIHen alde izeneko kanpaina izan zen, bigarren hezkuntzako 2. mailako ikasle eta irakasleei zuzendua. Zazpi hezkuntza-zentrotako 600 gaztek hartu zuten parte, eta 2030 Agendari buruzko prestakuntza jaso zuten. Ondoren, Bilboko Guggenheim museoan elkartu ziren, flashmob baten bidez 2030 Agendarerekiko beren babesa ikusarazteko.

Nazio Batuekin lotuta, nabarmentzekoa **da BBK-UNESCO Nazioartekotze Beken** 4. edizioari esker bi pertsona aritu zirela lanean 6 hilabetez Parisen, UNESCOren egoitza nagusian, bata Administrazio Zerbitzu Nagusietan, eta bestea Munduko Hizkuntzen Unesco Atlasa proiektuan.

Eusko Jaurlaritzaren **NBE beka-programari** esker, zazpi pertsona aritu ziren lanean Afrikako eta Latinoamerikako herrialdeetako UNESCOren bulegoetan. Haiekin batera, beste bostek beka berritu zuten bigarren urterako. 1997an hasi zen programa, eta ordutik 182 gaztek hartu dute parte.

## GARAPENERAKO KULTURA




Hezkuntza, Arteak eta Herritarrak II. Mintegia. GizARTE – Eraldetarako Heziketa Artistikoen Euskal Sarearen aurkezpena. Bilbo. 2017ko azaroak 29 eta 30.

Gizartea eraldatzeko eta garapen iraunkorrerako aukerarik ez dago tokian tokiko eta munduko ezaugarri kulturalak kontuan hartzen ez badira. Ikuspegi hori kontuan hartuta, UNESCO Etxeak lan-lerro sendo bat hasi du 2017an. Agerian jartzen du gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren erronka nagusiei aurre egiterakoan kulturak eta adierazpen kulturalen dibertsitateak duten boterea.

Hala, urte hasieran, UNESCOren **Unite4Heritage** kanpaina abiatu genuen berriz. Kultura-ondarearen suntsiketa salatzea eta munduko kultura-dibertsitatearen garrantzia nabarmentzea ditu helburu. Horretarako, ikusizko inpaktuaren botereaz baliatu ginen, eta Gure ondarean zeharreko bidaiak erakusketa eta Unite4Heritage animazio-bideoa egin genituen.

Bestalde, ekintza asko egin ditugu; esate baterako, ***Bioaniztasunerako Leihoari*** izeneko lehen topaketa. Euskal Kostaldeko Geoparkean izan zen, eta Latinoamerikako eta Euskadiko gazteek taldean lan egin zuten ingurumenari lotutako arazoei konponbideak aurkitzeko, diseinu eta arte digitaleko teknika berritzaileak erabiliz.

Gainera, jolasa eta heziketa uztartzen zituzten ekintzak antolatu genituen 10 urtetik 16 urtera arteko gazteekin, haien sormena eta gogoeta garrantzitsutzat joz. Getxon, *ANIZTASUNerakoKOMIKIAK* **komikigintzako hastapen-tailerra** egin genuen, eta kultura-dibertsitateari lotutako kontuak jorratu genituen. Basaurin, **antzerkiko hastapen-tailer** bat egin genuen, Berdintasuna ez da jolasa izenekoa, eta genero-estereotipoak landu genituen.

Eta urtea amaitzeko, azaroan, Hezkuntza, Arteak eta Herritarrak II. Mintegia egin genuen, eta harekin batera jendaurrean aurkeztu genuen **GizARTE Gizarte-eraldaketarako arte-hezkuntzaren euskal sarearen sorrera.** Sarearen izpiritua partekatzen duten artistei, hezitzaileei eta kultura-kudeatzaileei dago irekita. Interreg POCTEFAk deitutako ***Mind The Gap*** (Hezkuntzara eta kulturara sarbidea, Pirinioetan zeharreko lurraldeetan gaitasunak sortzeko) **Europako proiektuan** parte hartuko dugula ere iragarri genuen.

**Informazio gehiago: www.unescoetxea.org**

## HEZKUNTZA ETA BAKE KULTURA



Ondare Industrialari buruzko topaketa, meatzaritzan oinarritutakoa.
Arboleda (Trapagaran) eta Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa. 2017ko apirilak 25.

2017an, Hezkuntza, bake kultura eta giza eskubideak sustatzen jarraitu genuen, prestakuntza-jardueren bidez eta UNESCOren txostenak aurkeztuz.

**Mundu mailako Hezkuntzaren II. Jarraipen Txostena** aurkeztu dugu. *Hezkuntzaren arloan kontuak ematea: gure konpromisoak* betetzea du izenburu, eta aztertzen du kontuak emateko mekanismorik eraginkorrenak zein diren eta zein faktore politiko, ekonomiko eta sozialek eragiten duten mekanismo horiek ondo funtzionatzea edo porrot egitea. Txostenak hezkuntza-zerbitzu eraginkorrago eta bidezkoagoak eskaintzeko aholkuak ematen ditu. Horrez gain, Garapen Iraunkorrerako 4. Helburua (GIH) lortzeko hartutako konpromisoan zer aurrerapauso eman diren aztertzen du.

UNESCOri atxikitako eskolekin industria-ondareari buruzko proiektu bat landu genuen ikasturtean zehar, meatzaritzan oinarritzen zena, eta Zugaztietan eta Euskal Herriko Meatzaritza Museoan (Bizkaia) egindako topaketa batekin amaitu genuen.

UNESCOri atxikitako bi ikastolak, Lauaxeta ikastolak eta Urretxu-Zumarragako ikastolak, estatuko II. UNESMUN egitasmoan parte hartu zuten atxikitako 27 eskolatako 250 ikaslerekin batera. Hezkuntza-jarduera bat da UNESMUN, eta Nazio Batuetako herrialdeak nola biltzen diren eta herrialde horiek gizateriaren intereseko gaiak nola negoziatzen dituzten erakusten du, kopiatuz.

Prestakuntzari dagokionez, *Garapenerako lankidetzako proiektuak formulatzean giza eskubideen ikuspegia barne hartzea* izeneko ikastaroa egin genuen, eta erakundeetako eta euskal unibertsitateetako hogei ordezkarik parte hartu zuten. ***Human Rights Internship Programme*** ikastaroa ere egin genuen berriz, giza-eskubideen eta hezkuntzaren alorreko 30 profesionalek bakeari eta giza eskubideen jatorriari, historiari eta nazioarteko kodifikazioari buruzko eta eskubide horiek babesteko eta sustatzeko Nazio Batuek dituzten mekanismoei buruzko prestakuntza jasotzeko.

**Informazio gehiago: www.unescoetxea.org**

## IRAUNKORTASUNA




Nerea del Moral eta Unai Urkidi, Urdaibaiko ordezkariak MaB Gazteen Foroan.
Poren deltako Biosferaren erreserba, Italia. 2017ko irailak 18-23.

2017an, UNESCOren MaB (biosfera-erreserbak) programan modu aktiboan parte hartzen jarraitu genuen. Urdaibairen ordezkariak izan ginen EuroMaB2017 kongresuan. Bilkura horretan, Urdaibaiko eskoletan Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Helburuen alde egindako lana azaldu zuen Aran Acha zuzendariak.

Urdaibain eta Euskal Kostaldeko Geoparkean 2030 Agenda, GIHak eta UNESCOren balioak ezagutarazteko tailerrak eman genituen. Hala, Urdaibaiko eta geoparkeko gazteak hiritar kritiko izatea bultzatu nahi izan dugu. Hemeretzi zentrotan egin genituen tailer horiek, eta 475 ikaslek parte hartu zuten guztira.

**Urdaibai beken lehen deialdia** egin genuen, eta bekar horiei esker, biosfera-erreserbarekin lotura duten gazteek lau hilabeteko prestakuntza-praktikak egin ahal izan zituzten. UNESCO Etxearen laguntzarekin, gazte horiek Biosfera Erreserbetako Gazteen Foroan (UNESCO 2017 MAB Youth Forum) ere parte hartu ahal izan zuten. Foro horrek mundu osoko gazteek MaB programan parte hartzeko eta beren komunitateetako garapen iraunkorrean laguntzeko aukera ematen du. 85 herrialdetako 142 erreserbetako 282 gazte izan ziren foroan. Horrekin lotuta, bi ekitaldi ere antolatu ziren *Urdaibai eta Gazteria* lelopean, Urdaibaiko gazteen ikuspegia eta kezkak ezagutzeko.

Euskadin egiten den lana nazioartean zabaltzeko dugun egitekoari eutsiz, sareetan dugun presentzia baliatu dugu **Euskal Adierazpena – Europako hiri eta herrietarako bide-orri berria** eta Udalsarea 21en lana ezagutarazteko. Aran Acha gure zuzendaria ICLEIk (Iraunkortasunaren aldeko tokiko gobernuen Europako sarea) antolatutako Ekintza Eraldatzailearen Sariko epaimahaikide izan zen.

**Euskadiko Ekosistemen Zerbitzuen Ebaluazioa** proiektua ezagutarazten jarraitzen genuen bertan nahiz nazioartean. Beste gauza askoren artean, nazioarteko bileretan parte hartu genuen, esaterako, IPBESenean. Euskadiko Naturari eta Ongizateari buruzko online ikastaro bat ere antolatu genuen, eta irakasleei zuzendutako ikastaro berezi bat ere izan zen 2017an.

Ingurumen osasuntsua giza eskubide bat dela defendatzeko lanean jarraitu du UNESCO etxeak. Gauzatutako ekintzen artean, hau nabarmentzen da: ***Ingurumenerako giza eskubidea 2030 Agendan*** dosierra.

## 2017ko ARGITALPENAK www.unescoetxea.org eta www.youtube.com/unescoetxeapv -en eskuragarriak

**Berezko argitalpenak:**

- El derecho humano al medio ambiente en la Agenda 2030.

**Bideoak:**

- Garapen Iraunkorrerako Helburuak.
- #Unite4Heritage kanpaina.
- Urdaibai eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak.
- Hezkuntza, Arteak eta Herritarrak II. Mintegia. .
- Alda dezagun planetaren norabidea. Mugi zaitez GIH-en alde.
- SOStenibles. tv.
- Eman 1' Hezkuntza Inklusibo eta Ekitatiboaren alde.
- Europako Hizkuntza Aniztasunaren Foroa.




# EKITALDI NABARMENAK

## ❶ 17X17 EKIMENA

2017ko ekainaren 22an UNESCO Etxeak *17 erakunde, 17 GIH* ekimena aurkeztu zuen. #GIH17x17

Euskadiko hainbat arlotako (enpresa, unibertsitatea, garapena eta gizarte-ekintza, ikerketa, berrikuntza, kultura, kooperatibismoa, ingurumena eta arlo instituzionala) 17 erakundek konpromisoa hartu zuten, 2030era arte Nazio Batuen iraunkortasunaren agenda globala osatzen duten Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuak (GIH) betetzeko.

Hona hemen erakundeok:

- Cáritas Bizkaia
- Munduko Landagunea
- Munduko Medikuak
- Eusko Ikaskuntza
- MET Community. País Vasco
- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
- Iberdrola
- Novia Salcedo Fundazioa
- Innobasque
- Grupo Urbegi
- Deusto Cities Lab
- Eroski Fundazioa
- BC3 – Basque Centre for Climate Change
- Donostiako Aquariuma
- Garapen iraunkorra eta ingurumen hezkuntzari buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedra
- Ararteko
- UNESCO Etxea - Euskal Herriko UNESCO Zentroa

Garapen Iraunkorrerako Agendak eta agenda hori osatzen duten 17 Garapen Iraunkorrerako Helburuek eskatzen digute, euskal gizarte gisa, oro har, konpromisoa hartzea eta era koordinatuan lan egitea, helburu horiek lortze aldera gure gizartean eta maila globalean jardungo duen 2030erako Euskal Agenda egituratzeko.

Jakin badakigu erronka handia dela, eta horregatik lortu nahi dugu euskal gizartean giltzarri diren eragileen atxikimendua, lan-eremu eta sektore bakoitzaren barruan erreferentzia izan daitezen. Helburu bakoitzak berekin dakar giltzarrizko euskal erakunde batekin ituna eta gizarte-konpromisoa eratzea; eta, Garapen Iraunkorrerako Helburuak elkarlotuta daudenez, 17 erakunde eta 17 GIH horiek sortutako indarra izango da arrakastaren giltzarria.

## ❷ #UNITE4HERITAGE KANPAINA

Urte hasieran, UNESCOren *Unite4Heritage* kanpaina abiatu genuen berriz. Kultura-ondarearen suntsiketa salatzea eta munduko kultura-dibertsitatearen garrantzia nabarmentzea ditu helburu. Horretarako, egin genituen:

- 'Bidaiak ondarean barrena' argazki erakusketa. Erakusketan, agerian jartzen da, eskuragarri dauden lizentzia libreko irudiak erabiliz, zeinen hauskorra den gure kultura-ondare komuna, bere forma guztietan. Urriaren 2tik abenduaren 11ra arte Bizkaia Zubian egon zen.
- Dibulgaziozko 3 bideo. Lehena orokorra da, eta kultura-ondarearen kontserbazioa baliotsua eta garrantzitsua dela adierazten digu; Bigarrenak, berriz, Donostiako Ontzi Museoko zuzendariari egindako elkarrizketa bat erakusten digu eta Hirugarrenean, azkenik, Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroko zuzendariari egindako elkarrizketa bat azaltzen da.

## ❸ 'EMAN MINUTU 1' LEHIAKETA

2017an, 8. edizioan, lehiaketak *Eman minutu 1 Hezkuntza Inklusibo eta Ekitatiboaren alde* izena hartu zuen. Lanek ondorengo gaien sustatzeari, defendatzeari eta/edo urraketa salatzeari buruzkoak izan behar zuten: Garapen Iraunkorrerako 4. Helburua eta Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 26. Atala.

Mikel Unzue, bilbotarrak irabazi zuen edizioa 'Piezas de colores' lanarekin.

Hamazortzi urte beherakoentzako 'Ekin eta egin' kategorian, 12 nubes Taldea, gasteiztarra, izan zen garaile 'Nos gusta ser diferentes' lanarekin eta 'UNESCO Etxea' kategorian Xabier Lunak, Nafarroakoa, irabazi zuen 'Nunca es tarde' lanarekin.

Haurtzaro ikastolako DBH 1mailako taldeak, Oiartzungoa, 'Zergatik ez banatu!' lanarekin 'Eusko Ikaskuntza' saria irabazi zuen. Sari honekin, euskarazko minuturik onena saritu zen.

Donostiako Asuncion ikastetxeak aurkeztua, 'Lukaa' bideoa 'Eiken Aipamena' irabazi zuen. Sari honekin, teknika digitalen erabilera hobekien bultzatu duena saritu zen.

Informazio gehiago: http://dame1minutode.org









# DATU EKONOMIKOAK

## GARDENTASUNA

Gure kontuak LKS Auditores, S.L.-k ikuskatzen ditu.

Kontu-ikuskaritzaren txostenak 'Gardentasuna' atalean www.unescoetxea.org web gunean daude.

## Sarrera pribatuen eta publikoen jatorra

| Sarrerak guztira 2017 | 822.281,37 | |
|---|---|---|
| **Ekarpen pribatuak** | **168.778,98** | **20,53%** |
| Bazkideak | 12.700,00 | 1,54% |
| Erakunde pribatuak | 92.693,58 | 11,27% |
| Beste Batzuk *(Norbanakoen dohaintzak, publizitate balioespena...)* | 63.385,40 | 7,71% |
| **Ekarpen publikoak** | **653.502,39** | **79,47%** |
| Eusko Jaurlaritza (*) | 533.415,00 | 64,87% |
| Aldundiak *(BFA – GFA - AFA)* | 51.639,52 | 6,28% |
| Udalak *(Bilbo, Getxo, Basauri)* | 32.847,87 | 3,99% |
| Beste batzuk *(lokalen lagapenaren amortizazioa)* | 35.600,00 | 4,33% |

***(*) Eusko Jaurlaritzan:***
***Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia*** *72,69% ;* ***Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila*** *13,12% ;* ***Hezkuntza Saila*** *46,75%,* ***Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza*** *5,01% ;* ***Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia*** *2,43%.*

## Programetako gastua

| GASTUAK GUZTIRA 2017 | 821.199,40 | |
|---|---|---|
| 2030 Agenda eta Nazio Batuak | 443.051,65 | 53,95% |
| Iraunkortasuna Programa | 92.550,35 | 11,27% |
| Garapenerako Kultura Programa | 138.919,62 | 16,92% |
| Hezkuntza ren eta Bake Kulturaren Programa | 39.849,80 | 4,85% |
| Kudeaketa orokorra | 70.714,62 | 8,61% |
| Lokalen amortizazioa | 36.113,35 | 4,40% |

## Egoera-balantzea 2017

| AKTIBOA | |
|---|---|
| Aktibo ez-zirkulatzailea | 86.313,93 |
| Aktibo zirkulatzailea | 716.994,97 |
| **Aktiboa guztira** | **803.308,90** |

| ONDARE GARBIA ETA PASIBOA | |
|---|---|
| Ondare garbia | 709.062,34 |
| Fondo propioak | 43.804,97 |
| Diru-laguntzak, dohaintzak, lagapenak | 665.257,37 |
| Pasibo zirkulatzailea | 94.246,56 |
| **Ondare garbia eta pasiboa guztira** | **803.308,90** |

UNESCO Etxeak bere ahalegina eskertzen die hurrengo enpresa eta erakundeei, 2017an laguntza eman baitigute giza garapen iraunkorraren alde lanean jarraitzeko.

### Instituzioari diruz laguntzen diote:

- Laboral Kutxa.
- Ausolan.

### UNESCO Etxearen egitasmoetan laguntzen dute:

- BBK Fundazioa.
- Iberdrola.
- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa.
- Irizar Koop. Elkartea.

### Baliabideak uzten dituzte:

- Diario El Correo.
- Diario de Noticias de Gipuzkoa.
- Diario de Noticias de Álava.
- EITB.

## 2017ko Auditoriaren txostena

LKS

LKS AUDITORES, S. L. P.
Polígono Basabe. Pab. E-0 2º Dcha
20550 ARETXABALETA (Gipuzkoa)
T: 943 03 74 80
F: 943 03 74 81
lksauditores@lksauditores.es
www.lksauditores.es

**INFORME DE AUDITORÍA DE CUENTAS ANUALES ABREVIADAS EMITIDO POR UN AUDITOR INDEPENDIENTE**

Al Consejo de Gobierno de UNESCO ETXEA – CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO:

**Opinión**

Hemos auditado las cuentas anuales abreviadas de **UNESCO ETXEA – CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO** (la Entidad), que comprenden el balance abreviado a 31 de diciembre de 2017, la cuenta de resultados abreviada, y la memoria abreviada correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha.

En nuestra opinión, las cuentas anuales abreviadas adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la Entidad a 31 de diciembre de 2017, así como de sus resultados correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación (que se identifica en la Nota 2.1 de la memoria abreviada) y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

**Fundamento de la opinión**

Hemos llevado a cabo nuestra auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas vigente en España. Nuestras responsabilidades de acuerdo con dichas normas se describen más adelante en la sección *Responsabilidades del auditor en relación con la auditoría de las cuentas anuales abreviadas* de nuestro informe.

Somos independientes de la Entidad de conformidad con los requerimientos de ética, incluidos los de independencia, que son aplicables a nuestra auditoría de las cuentas anuales en España según lo exigido por la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas. En este sentido, no hemos prestado servicios distintos a los de auditoría de cuentas ni han concurrido situaciones o circunstancias que, de acuerdo con lo establecido en la citada normativa reguladora, hayan afectado a la necesaria independencia de modo que se haya visto comprometida.

Consideramos que la evidencia de auditoría que hemos obtenido proporciona una base suficiente y adecuada para nuestra opinión.

Inscrita en el Registro mercantil de Gipuzkoa en el Tomo 1167, folio 46, hoja SS-3389, Inscripción 1ª • C.I.F.: B-20419701
Inscrita en el ROAC con el nº s1054 y en el Instituto de Censores Jurados de Cuentas de España con el nº 507.

LKS AUDITORES, S. L. P. | LKS

**UNESCO ETXEA – CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO**

Informe de auditoría de cuentas anuales abreviadas emitido por un auditor independiente a 31 de diciembre de 2017

- Evaluamos si las políticas contables aplicadas son adecuadas y la razonabilidad de las estimaciones contables y la correspondiente información revelada por el Consejo de Gobierno.
- Concluimos sobre si es adecuada la utilización, por el Consejo de Gobierno, del principio contable de empresa en funcionamiento y, basándonos en la evidencia de auditoría obtenida, concluimos sobre si existe o no una incertidumbre material relacionada con hechos o con condiciones que pueden generar dudas significativas sobre la capacidad de la Entidad para continuar como empresa en funcionamiento. Si concluimos que existe una incertidumbre material, se requiere que llamemos la atención en nuestro informe de auditoría sobre la correspondiente información revelada en las cuentas anuales abreviadas o, si dichas revelaciones no son adecuadas, que expresemos una opinión modificada. Nuestras conclusiones se basan en la evidencia de auditoría obtenida hasta la fecha de nuestro informe de auditoría. Sin embargo, los hechos o condiciones futuros pueden ser la causa de que la Entidad deje de ser una empresa en funcionamiento.
- Evaluamos la presentación global, la estructura y el contenido de las cuentas anuales abreviadas, incluida la información revelada, y si las cuentas anuales abreviadas representan las transacciones y hechos subyacentes de un modo que logran expresar la imagen fiel.

Nos comunicamos con el Consejo de Gobierno de la entidad en relación con, entre otras cuestiones, el alcance y el momento de realización de la auditoría planificados y los hallazgos significativos de la auditoría, así como cualquier deficiencia significativa del control interno que identificamos en el transcurso de la auditoría.

Entre los riesgos significativos que han sido objeto de comunicación al Consejo de Gobierno de la entidad, determinamos los que han sido de la mayor significatividad en la auditoría de las cuentas anuales abreviadas del periodo actual y que son, en consecuencia, los riesgos considerados más significativos.

Describimos esos riesgos en nuestro informe de auditoría salvo que las disposiciones legales o reglamentarias prohíban revelar públicamente la cuestión.

**LKS AUDITORES, S.L.P.**
Inscrita en el R.O.A.C. Nº S1054

AUDITORES
INSTITUTO DE CENSORES JURADOS DE CUENTAS DE ESPAÑA
LKS AUDITORES, S.L.P.
2018 Núm. 03/18/03069
96,00 EUR
SELLO CORPORATIVO:
Informe de auditoría de cuentas sujeto a la normativa de auditoría de cuentas española o internacional

**Mª Mercedes Pascual Maestre**
Inscrita en el R.O.A.C Nº 18.942
26 de abril de 2018